



Hiru hilabete opari eskaintzen dituen sustapen eskusiboa barne

Euskaltelek entretenimendu-eskaintza zabaldu du, Max ere eskura jarritz

- **Euskaltelen bezeroek aukera dute dagoeneko Max streaming-zerbitzu berriaren entretenimenduko edukien katalogo zabal eta eskusiboa ikusteko.**

Bilbon, 2024ko maiatzaren 21ean.- [Euskaltel](#)ek eta Warner Bros. Discovery-k hitzarmen bat sinatu dute, zeinaren bidez euskal operadoreak, gaurtik aurrera, bere bezeroen eskura jartzen baitu **Max** streaming-zerbitzu berriaren entretenimenduko edukien katalogo zabal eta eskusiboa.

OSOA Infinity tarifa (zuntza + GB mugagabeak eta TB) duten bezeroek zein alta berriek doan probatu ahal izango dute hiru hilabetez Maxen entretenimendu-aukera: publiko-mota orotarako edukiak eskaintzen ditu, gustu eta adin guztietarako egokiak. Sustapen-aldia amaitu ondoren, *premium* eduki horiek preziorik onenean ikusten jarraitu ahal izango dute bezeroek: 8 €/hil, zerbitzuaren ohiko prezioaren % 20ko beherapenarekin, gutxi gorabehera (ohiko prezioa: 9,99 €/hil).

Besteak beste, HBOko edukia, Warner-en filmak eta Harry Potter

Maxek, Warner Bros. Discovery-ren streaming zerbitzu berrituak, hauek guztiak eskaintzen ditu: HBO plataformaren jatorrizko produkzioak, Warner Bros-en filmak, Max Originals, DC unibertsoa, Harry Potter frankizia, haurrentzako eskaintza zabala eta elikadura, etxea, *reality*ak, bizi-estiloak eta dokumentalak ardatz dituen punta-puntako programazioa lehen mailako markarik onenen eskutik, hala nola HGTV, Food Network, Discovery Channel, TLC, ID eta abar.

Hala, beraz, Euskaltelen telebistako bezeroek kritikaren eta publikoaren oso gustuko izan diren telesailak ikusi ahal izango dituzte; esate baterako, *Juego de Tronos* eta *La Casa del Dragón* haren *spin off*a (Max-ek bigarren denboraldia estreinatuko du ekainean), *Big Band Theory*, *Succession*, *Los Soprano* edo *The Last of Us*; saga ezagunak, hala nola *Harry Potter*, *Matrix* eta *El Señor de los anillos*; DC kanaleko superheroien abentura-film guztiak: *Batman*, *Aquaman* edo *Wonder Woman*; edo etxeko txikien pertsonaiarik kuttunenen abenturak: *Ben 10*, *Gumball*, *Bugs Bunny*, *Scooby Doo* eta beste asko. Kirola ikusteko, Eurosport kanala ere eskaintzen du, tenis- eta txirrindularitza-lehiaketekin gozatzeko, adibidez, bai eta aurtengo udan Parisen egingo diren Olinpiar Jokoei jarraitzeko ere.

Euskaltelek **Max** plataforma ikusteko **plan estandarra** eskaintzen du, zeinak aukera ematen baitu edukiak bi gailutan aldi berean ikusteko, horietako batzuk Full HD kalitatean, eta offlineko 30 deskarga egiteko. Informazio gehiago: [Max | Maiatzaren 21ean helduko da streamingeko esperientzia hobetua](#)



Euskalteli buruz

Operadore nagusia da Euskadin eta Nafarroan, eta lotura estua du eremu horrekin. Zuntz optikozko eta 4G eta 5G mugikorreko sare zabala du, eta, horri esker, telekomunikazio-zerbitzu bateratuak eskaintzen dizkie partikularrei, enpresei eta administrazio publikoei.

2024ko apirilaz geroztik, Euskaltel MASORANGE konpainiako kide da, zeina Espainiako Estatuako telekomunikazioen sektoreko liderra baita bezero-kopuruan. Euskaltelek, MASORANGERen Euskadiko eta Nafarroako erreferentziatzeko marka gisa, etxeetako bezero eta enpresa bezeroen premia guztiei erantzun diezaike IKTetako soluzioak eskainiz komunikazio-ziklo osoan, zerbitzu teknologikoen aukera zabal baten bidez: Internet, telefonia finkoa, telefonia mugikorra, telebista digitala, banda zabala, eraldaketa digitaleko prozesuak, IoT soluzioak (gauzen Internet), adimen artifiziala, hiri adimendunetarako soluzioak eta 4.0 industria. Gainera, telekomunikazioez gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu Euskaltelek, etxerako soluzioen ekosistema oso bat eraiki baitu: argi- eta gas-energia berdea eta merkatuko alarma-zerbitzurik osoena.

Euskaltelek Agile TVren bidez ematen duen zerbitzuak eduki-eskaintza zabal eta askotarikoa du, 100 kanal baino gehiago eta nahierako programazioa barne, eta gailu askotan ikusteko aukerarekin. Euskaltelek beste plataforma batzuetako edukiak ere eskaintzen ditu: Netflix, Amazon Prime eta DAZN; eta, hemendik aurrera, baita MAX ere.

Warner Bros. Discovery-ri buruz

Warner Bros. Discovery (NASDAQ: WBD) hedabide- eta entretenimendu-konpainia global bat da, munduko eduki-katalogorik osatuena eta telebistako, zinemako eta streamingeko marka gehien eta askotarikoenak sortzen eta banatzen dituena. 220 herrialde eta lurraldetan baino gehiagotan eta 50 hizkuntzatan emitituz, Warner Bros. Discovery-k mundu osoko ikus-entzuleak inspiratzen, informatzen eta entretenitzen ditu bere marka eta produktuen bidez: Discovery Channel, Max, discovery+, CNN, DC, Eurosport, HBO, HBO Max, HGTV, Food Network, OWN, Investigation Discovery, TLC, Magnolia Network, TNT, TBS, truTV, Travel Channel, MotorTrend, Animal Planet, Science Channel, Warner Bros. Film Group, Warner Bros. Television Group, Warner Bros. Games, New Line Cinema, Cartoon Network, Adult Swim, Turner Classic Movies, Discovery en Español, Hogar de HGTV eta beste zenbait. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi www.wbd.com.

Euskaltel – Komunikazioa

comunicacion@euskaltel.com